

## MUK eta COPITIGek lankidetzan hitzarmena izenpetu dute

2014/04/14

Esparru hitzarmen hau bi aldeek egokitzapen ikastaroen diseinuarekin sortu den harremanaren formalizazioa da.

Gaur arte lanean diharduten 250 profesionalak baino gehiagok, ingeniari teknikoaren titulua dutelarik, titulazioa beren espezialitateko gradura egokitzea lortu dute dagoeneko.

Europako Goi Mailako Hezkuntza Eremua indarrean jartzearekin batera, aurreko sisteman unibertsitarioan ingeniari teknikoak (3-4 urteko ikasketak) eta goi mailako ingeniarien (6 urteko ikasketak) artean zegoen bereizketa desagertu egin zen, ikasketa guztiak ingeniartzako gradura egokitzea batu baitziren. Baina berdinketa horrek ez die lehenago ingeniartzako teknikoan titulua atera zutenei, horietatik gehienak gaur egun lanean dihardutelarik, horiek ingeniari tekniko baina graduatu gabeak izaten jarraitzen baitute.

Behar horretaz jabetuta, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak, Gipuzkoako Peritu eta Industria Ingegnari Teknikoak eta Graduak Elkargoarekin lankidetzan (COPITIG), Ingegnari Teknikoak zuzendutako egokitzapen ikastaroak abiarazi ditu –‘zubi ikastaroak’ ere esaten zaie–; ingeniari horiek aukera izango dute lehengo karrera ertain bateko titulua izateko europar graduatuak izatera igarotzeko, urte bateko ikasketak eginez –prestakuntza erdipresentziala edo online, moodle plataformaren bidez teknologia berrietan oinarrituta–, hainbat ikasgai ikasiz eta gradu amaierako lana eginez.

Urrian graduak titularen parekoa lortzeko sei egokitzapen ikastaro eskainiko dira, Ingegniaritza Mekanikoan, Industria Elektronikan, Industria Diseinuan eta Produktuaren Garapenean, Informatikan, Telekomunikazio Sistemen Ingegniaritzan eta Industria Antolamenduan, formatu erdipresentzian edo online, gaztelaniaz, eta ikastaro bakoitzean lekuak mugatuak izango dira.

Horrenbestez, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak aukera eskainiko du berriro ingeniari teknikoek graduak ikasketetarako egokitzapen ikastaroa egin dezaten. Eskaintza horri esker adar horretan bigarren titulazio bat lortu ahal izango dute, bere prestakuntza osatzeko, soslai profesionala zabaltzeko eta Bolognara egokitutako gradu bat izateko.



MU - COPITIG hitzarmena